

# getxoBerri



**Getxo**  
bizi ezazu

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.500 zb.  
www.getxo.net

Maiatzak 10  
>> Maiatzak 20

2018

## / Nabarmentzekoak

- > Zabalik da eskola-orduz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak eskatzeko epea, euskara sustatzeko (2. or.)
- > 300 lagun inguru Bentako bisitaldian (4. or.)
- > Errugbiaren jaia ere iritsi da Getxora (5. or.)



Romo Kultur Etxeak hainbat zerbitzu jarri ditu martxan, pertsona nagusientzat (3. or.)

**San Isidroko jaiak.** Ostirala, maiatzak 11, jaien hasiera. 17:00etan, Malakaten, txupinazoa eta pregoia. Asteartera arte, hilak 15. Gaueko autobus zerbitzua dohainik.

**Udaberriko kontzertu solidarioa.** Ostirala, maiatzak 18, 20:15ean, Areetako Santa Ana parrokian, Areetxo taldearen emanaldia. Bidesari elkartearen alde.

**A-**  
GENDA



## “Getxon 24 ordu euskaraz”, Euskaraldiaren proba pilotua

Maiatzaren 24an *Getxon 24 ordu euskaraz* ekimena izango da, datorren azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herriko herri askotan izango den Euskaraldiaren proba pilotua, udalerrian ekimen horren sustatzaileak diren Udalak eta Bizarra Lepoan eta Egizu elkarteek antolatuta.

Euskaraldiaren zein *Getxon 24 ordu euskaraz* ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko

ariketa izango dira, euskararen erabilera sustatzeko. “*Udala bat dator ekimenarekin, euskararen erabilera sustatzeko beste urrats bat izango delakoan. Ohitura aldatzeko hasieran egun zehatz batzuetarako proposatzen dira, baina gero ere irauteko. Bi ekimenak aurrera eramateak agerian uzten du udala eta euskararen eragileen arteko elkarlana udalerrian*”, Koldo Iturbe Euskara zinegotziaren hitzetan.

Horretarako, hurrengo roletako bat hartzeko konpromisoa hartzeraz gonbidatzen da: **Ahobizi**, lehenengo hitza beti euskaraz egingo duena; **Belarriprest**, berari euskaraz egitea nahi duena, eta berak euskaraz zein erdaraz erantzungo du, eta *Getxon Irribizi* ere, euskararik ulertu ez arren, poztu egingo dena euskara entzuten.

### Izenematea

*Getxon 24 ordu euskaraz* ekimeneko partaideek izena eman behar dute. Rola



aukeratzekoan, horren txapa jasoko dute, soinean eraman ahal izateko (oraingoan eta azaroan). Informazioa eta izena emateko [www.getxoztarrak.eus](http://www.getxoztarrak.eus) webgunean dago, euskal hiztunen komunitate digitala. Orain arte 157 lagunek eman dute izena. Izena emateko mahaiak hurrengo egun eta tokitan izango dira: maiatzaren 12an, Erromotruke azokan eta Areetako Amistad kalean, 11:30etik 14:30era; maiatzaren 15ean, Andra Marin, 16:30etik 20:30era, eta maiatzaren 19an Algortako Geltokia Plazan eta San Nikolas Plazan, 11:30etik 14:30era. Udalerriko hainbat establezimendutan ere eman ahal izango da izena (<https://bit.ly/2rxD3bs>).

“**24 ordu euskaraz**” ekimenaren egitaraua  
Maiatzaren 23an, 20:00etan emango diote hasiera *Getxon 24 ordu euskaraz* ekimenari, Romoko Santa Eugenia plazan, Getxoko Euskaraldiaren ahotsa izango diren hamaika lagun (argazkikoak) testigantzekin bideo txoaren proiektioarekin. Tor magoarekin gozatzeko eta Kresaltxu kantari taldeko kideekin batera abesteko aukera ere izango da. “*Ondoren,*

*24 ordu horietan normaltasunez arituko gara norberak euskaraz bizitzeko egindako hautua betez*”, azaldu zuen Garazi Lopez de Uralde, EGIZUko dinamizatzaileak.

Maiatzaren 24an Euskararen berbodromoa ere antolatuko da, 09:00etan eta 11:00etan Romoko Santa Eugenia plazan, eta 19:00etan Algortako San Nikolas plazan.

Egun osoan zehar, selfiak egingo dira, ondoren 688653042 telefono zenbakira bidali eta sare sozialetan zabalitzeko, #Getxo24euskaraz traola erabiliz. Bidalitako selfiak amaiera ekitaldian proiektatuko dira, Getxoko Hamaikako kide bik irakurriko duten mezuarekin batera. “*Ekitaldia bukatzean 25. orduan ere euskaraz egiten jarraitzeko proposatuko dugu, hizkuntza ohituretan pausuak ematen, Euskarak 365 egun ekimenari lotuta*” gehitu du Lopez de Uraldek. Kantu-jira poteoarekin amaituko da eguna, Itxar kantua, Itxas Argia eta Itzubaltzeta kantuz-eko lagunekin.



## Euskaraldiko enbaxadoreak

Euskaraldiaren enbaxadore eta aurpegi izango dira Getxoko hamaikakoa osatzen duten kideak, herritarren parte hartzea aktibatuko dutenak, eta jardueren bozeramaileak izango direnak. Hamaikakoa Getxoko auzo, profil eta adin ezberdinetako hamaika emakume eta gizonek osatzen dute. Argazkian, ezkerretik eskuinera:

1. **Arrate Saitua:** irakaslea eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko bazkidea.
2. **Afrika Bibang:** abeslaria, besteak beste, Etsaiak taldean, Fermin Murguzaren kolaboratzailea.
3. **Asier Alda:** Magisteritzako ikaslea, entrenatzailea, begiralea eta Musikalia Elkarteko koordinatzailea.
4. **Maidier Santxo:** Aixerrota Institutuko ikaslea eta Aixerrota boleibol taldeko jokalaria.
5. **Pedro Larragan:** Kazetaria eta Confebaskeko Komunikazio zuzendaria.
6. **Victoria Bengoa:** biologoa eta Berbalaguna eta Toponomia ibilbideen sortzaileetako bat.
7. **Amaia Garces:** Matematikako ikaslea eta Ziztu Bizian Eskaut taldeko begiralea.
8. **Ibon Larrinaga:** boxeolari gaztea. Estatu Batuetan egingo du debuta.
9. **Itxaso Arana:** Sommelieria. Jolastoki Jatetxea.
10. **Deu Txakartegi:** arkitektoa eta We are standard taldeko kidea.
11. **Endika Guarrotxena:** irakaslea eta Algortako ikastolako lehenengo promozioiko ikaslea.





## MAIATZAK 10 OSTEGUNA

**Getxo Zuzenean!** Algortako The Piper's Irish Puben, 20:00etan, Romo's Aires (tangoa) taldearen kontzertua. **Mugabarik.** Gizakien ahots-erregistroei buruzko triptikoa. 2. hitzaldia: "Voces femininas II". Hizlari: José Quisiant Montero (pianista). 19:30etan, Algortako Kultur Etxean. **Antolatzaile:** Mugabarik-Garapen elkarte pertsonal eta komunitarioa. **Euskara, immigrazioa eta kultur aniztasuna: Solasaldia** Idurre Eskisabelekin, 19:00etan, Azebarri Kultur Elkartean, euskaraz, Udalak eta "Euskarak 365 egun" ekimenak antolatuta. **Getxo Meeting,** 14:30-16:30, Getxo Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areetak). Saiorearen gaia: "udalerriko kirol- eta kultura-ekitaldiei irabaziak nola aterata", Getxolanek antolatuta. Inskripzioak: [getxopro@getxo.eus](mailto:getxopro@getxo.eus) edo 94 466 01 40.

## MAIATZAK 11 OSTIRALA

**San Isidroko jaiak.** 17:00etan, Malakaten, txupinazoa eta pregoia. Ondoren, haurrentzako jarduerak, txokolate jana eta buruhandiak. 19:00etan mus txapelketa Bentan eta kalejira Areatxu fanfariarekin. 19:00etan emakumezkoen gomazko pilotaren kiniela, frontoian. 21:00etan kontzertua: Skabidean, Mr Pongo eta erromeria. **Benta.** 19:00etan, I. Mus Txapelketa. **Haur tailerra.** "Zurekin buru-belarri, kontu kontari: Bizikidetzarako liburutegiak". Adina: 4-6 urte (haurrek heldu batekin egon behar dute). Villamonteko (17:00etan) eta Romoko (18:30etan) haur liburutegietan, "Konta iezadakezu nolakoa zaren-Cuéntame cómo eres". Euskaraz eta gaztelaniaz. Leku-kopuru mugatua. Izen-emateak: [www.getxo.eus/apuntazaitez](http://www.getxo.eus/apuntazaitez)

**Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako klubaren saioa. "Migraciones" + norberak hautatzeko gaia. Sarrera dohainik. **Cinema Paradiso. 2017/18 denboraldiaren amaiera.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpiztituludun jatorrizko bertsoan, "En la vía láctea" filmaren proiektzioa eta foruma. Hizk.: serbiera. Zuzendaria: Emir Kusturica. 12 urteik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

## MAIATZAK 12 LARUNBATA

**San Isidroko jaiak.** 10:30etik aurrera, Malakaten, haurrentzako tailerrak Argia fundazioarekin, puzgarriak eta kalejira Txopolis fanfariarekin. 13:00etan Herri Kirolak probalekuan eta 15:00etan herriko bazkaria. 17:00etatik aurrera, haurrentzako ginkana kiroldegian eta 19:30ean zumba Malakaten. 20:30ean DJ "Deustoooh!" Malakaten eta 21:00etan Herrien Jaialdia Itxas Argiarekin, frontoian. 23:00etan kontzertua: Erasoka, Sumisión City Blues eta Item No. **Benta.** 12:30ean, nekazaritza ekologikoaren performance, objektu-eskulturen erakusketa: "Bizikardar" (artilea kardatzeko bizikleta) eta "BiziRueka" (bizikleta gainean iruteko gorua).

## MAIATZAK 13 IGANDEA

**San Isidroko jaiak.** 10:00etatik aurrera, kiroldegiko aparkalekuan, bertoko ekoizleen azoka. 11:00etan pilota partiduak frontoian eta 11:30ean haurrentzako argazki

ginkana. 12:00etan kalejira Andres Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, Hamaika taldearen eskutik, "Semillas del pasado". Gaztelaniaz. XII. "Emakumeak eszenan" zirkuitua. Sarrera: 3€. **Mendi-irteera.** Castro Valnera (1.718m.). Valnerako mendilerroa. **Antolatzaile:** Etorrizuna Mendi Taldea. Informazioa: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) eta tel.: 606 637 128 (Whatsapp).

## MAIATZAK 14 ASTELEHENA

**Erakusketa.** Romo Kultur Etxean "XXXV. Filatelia Erakusketa: RKE" Getxo Filatelia elkartearen eskutik. Hilaren 26ra arte. **Hitzaldia.** 19:00etan, Romoko Gobelaurre boluntariotza zentroan, "Futuro del trabajo. Nuevas tecnologías. La destrucción del trabajo asalariado. Robotización". Hizlaria: Imanol Zubero (soziologia irakaslea UPV-EHU). Sarrera dohainik. **Odol-ateratzea.** Algortako Geltokia plazan. Goizez eta arratsaldez.

## MAIATZAK 15 ASTEARTEA

**San Isidroko jaiak.** 12:45ean hamaiketako eliza aurrean. 18:00etan idi probak probalekuan.

## MAIATZAK 16 ASTEAZKENA

**Versadas.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, olerkizaleen klubaren saioa. Gaia: "José Hierro".

## MAIATZAK 17 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** Villamonteko haur liburutegian, 18:00etan, "Puertas de papel" (gaztelaniaz) Pedro Ruiz-en eskutik (Alabazan). Sarrera dohainik. **Literatura solasaldia.** Algortako kasi-noan, 19:45ean, Kultur Etxearen sortze-ideazketa taileraren eskutik. Juan José Saerren "La pesquisa" liburuari buruz. Sarrera dohainik.

**Getxo Zuzenean!** Algortako Jolasurre tabernan, 20:00etan, Rudy Mental (rock) taldearen kontzertua. **Gizatiar Romo-Areetako Emakunen Elkarte Soziokulturala.** Romoko San José Obrero parrokiako lokaletako ekintza-aretoan, 18:15ean, hitzaldia: "Mujeres. Premio Nobel. Una lucha contracorriente". Hizlari: María Garballo. Sarrera librea.

## MAIATZAK 18 OSTIRALA

**Haur tailerra.** "Zurekin buru-belarri, kontu kontari: Bizikidetzarako liburutegiak". Adina: 4-6 urte (haurrek heldu batekin egon behar dute). Villamonteko (17:00etan) eta Romoko (18:30etan) haur liburutegietan, "Zure istorioa konta iezadaku-Cuéntame tu historia". Euskaraz eta gaztelaniaz. Leku-kopuru mugatua. Izen-emateak: [www.getxo.eus/apuntazaitez](http://www.getxo.eus/apuntazaitez)

**Zine Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Theodore Melfiren "Figuras ocultas" filmaren proiektzioa eta foruma. Adin guztientzat. Sarrera: 2,90€.

**Udaberriko kontzertu solidarioa.** 20:15ean, Areetako Santa Ana parrokiaren emanaldia. Bidesari elkartearen alde.

## MAIATZAK 19 LARUNBATA

**Antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Erge-la" (euskaraz), Joseba Apaolaza eta Sara Cozarrekin. Sarrera: 10€

## MAIATZAK 20 IGANDEA

**Igandeko haur zinea.** 2017-18 denboraldiaren amaiera. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El hijo de Bigfoot" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€

# Zabalik da eskola-orduz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak eskatzeko epea, euskara sustatzeko

Udalak 38.400€ko gehienezko zenbatekoa (iaz baino 1.600€ gehiago) onartu du eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko deialdirako. Eskaerak aurkezteko epea datorren maiatzaren 25ean amaituko da, udalerriko Herritarren Arretarako Bulegoetan.

Diru-laguntzak euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeko burutzen dituen proiektuetarako izango dira, hain zuzen ere,

ahozkotasuna, murgiltzea, euskara modu aktiboan sustatzen duten jardueretarako.

2017an udalerriko 26 entitatek ikastetxe publiko eta pribatuetan antolatutako 200 eskola-orduz kanpoko jarduerak jaso zituzten diru-laguntzak.

## Euskal kultura sustatzeko diru-laguntzak

Bestalde, Udalak 30.832€-ko gehienezko zenbatekoa onartu du

euskal kultura sustatzen duten jardueretarako, oraingo honetan berritasun bezala lokala uzteko, eta aurrekoetan bezala, San Juan eta Olentzero jaiak antolatzeko. Lehenengo bietarako eskariak aurkezteko epea maiatzaren 11n amaituko da, eta hirugarrenetarako urriaren 19an.

Informazioa: <http://getxo.eus/eu/euskara/subvenciones-ayudas/subvenciones-ayudas-euskera>

# Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua esleitu da

Udalak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, EELZ, esleitu du bi urtez, lau urtera arteko luzatu daitekeelarik, gehienez 4.492.800€tan (urteko gehienezko aurrekontua 2.246.400€koa).

Laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzu bat da, eta horrek mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza eskaini nahi dio bizitzako jarduerak egiteko (higiene pertsonala, janaria prestatzea, erosketak egitea, etxea garbitzea, eta abar) bere bizilekuan jarrai dezan, bere in-

gurune komunitarioan; era horretan isolamendu-egoerak saihesten dira.

Getxon Zerbitzua 60 bat langilek eskaintzen dute. Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten pertsonen zerbitzua jasotzeko ordutegia libre dauden orduen arabera, eman beharrezko zerbitzu motaren eta Zerbitzuaren jarraipena egiten duen gizarte langileak erabakitako intentsitatearen arabera ezarriko da.

2017an Zerbitzuak 309 pertsona artatu zituen 286 etxebizitzatan (46 berri). Urtean emandako

batez besteko ordu kopurua 228koa izan zen (65.286 ordu guztira).

EELZ eskatzeko Gizarte Zerbitzuetako bulegoetara jo behar da. Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/servicios/detalle-tramite/78>

## Pentsiodunen teatro-ekintza

Pentsiodunen Plataformak, udalerrian sortu berria denak, teatro- eta musika-ekintza xume bat antolatu du Utopián arte eszenikoen zentroarekin elkarlanean. Ekintzaren helburua da, hain zuzen ere, kolektiboaren eskaerak hiritarrei ezagutaraztea, "era daktikoan, entrenigarrian eta partizipatiboan", plataformatik bertatik adierazi dutenez. Ekintza, Getxon pentsiodunak egiten ari diren elkarretaratze eta manifestazioen barruan dago, pentsio sistema publikoaren alde, horien KPIren arabera balio handitzearen eta erosteko ahalmenaren aldekoak, besteak beste.

Antzezpena maiatzeko bi astelehenetan egingo da. Hilaren 14an Algortako Geltokia plazan eta hilaren 28an Areetako Geltokia plazan, bi egunetan 12:00etan. Antzezlari horretan 20-25 bat pentsiodunen talde batek eta kopuru berdineko gazte talde batek hartuko dute parte. Horretarako, LHII Fadura ikastetxeko ikasleen berriazko laguntza eskatu dute plataformakoek, muntaiaren parte har dezaten.

## GEDen "jai erraldoia"

Gure Esku Dago plataformak *jai erraldoia* antolatu du igande honetarako, maiatzak 13, Romoko Santa Eugenia plazan, eta hiritar guztiei luzatu die gonbidapena jaiarekin bat egin dezaten, erabakitzeko eskubidearen alde.

Jai eguna 11:00etan hasiko da, haurrentzako tailerrek. 12:30ean, dantza plazaren ekitaldia izango da, euskal dantzen saioa alegia, eta ondoren txitxi-burduntzia eskainiko da. Jai girotzeko musika egongo da eta amaitzeko, datorren ekainaren 10ean antolatuko den giza kaitearen entsegua egingo da.



## Bandera Urdina Ereaga eta Arrigunagan

Ereaga eta Arrigunagako hondartzak dira Bizkaian 2018an Bandera Urdina izango duten hondartzak bakarrik. ADEAC-FEE Ingurugiroko Hezkuntzako eta Kontsumitzaileen Elkarteak ematen duen saria da, ingurumenaren kalitatea aitortzeko. Bandera urdina, ingurugiroa eta natura errespetatuz, itsasertzen eta hondartzen gestioan egindako ahaleginagatik dohainik ematen den saria da. Ereagan hamaikagarren urtez izango da bandera eta Arrigunagan bederatzigarrenez. Hondartza biek ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtagiriak ere badituzte.



## GetxoModa 2018 arrakastatsua

Lucía Alcaina gazte kataluniarrak irabazi du aurten GetxoModaren Diseinatzaile Berrien Lehiaketa. Horri esker, GetxoGalanta beka jasoko du, Alberto Sinpatrónekin ikasteko eta datorren urteko Getxoko pasarelan desfilatzeko aukera ere izango du. Aurten, GetxoModak Ion Fiz eta Alberto Sinpatrón diseinatzaileak eta Mikel Luzea estilista omendu ditu. Rafael Muñoz RTVEko moda-editorea eta *La Vida al bies* blog ospetsuaren egileari ere eskerrak eman dizkio ekitaldian parte hartzeagatik. Argazkian, agintariak, saridunak eta GetxoEnpresako ordezkariak.



- **Errentan** ematen dut saltokirikako lokala, dagoeneko egokitua, Salaidun. 170 m2. Tel.: 608 131 618.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragazkotasunaren erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**



## Ludotekan izenematea

Maiatzaren 18ra arte zabalik egongo da Kukupraka Ludotekak (Areetan) udan zehar 5 eta 11 urte arteko umeentzat eskainiko duen astez asteko doako zerbitzuan parte hartu ahal izateko izena emateko epea. Ludotekak ekainaren 25etik abuztuaren 31ra arteko zerbitzua eskainiko du, astelehenetik ostiralera, jai egunetan izan ezik, 10:30etik 13:30era bitartean. Ohi bezala, familia interesatuek zehaztu beharko dute zenbat astetan eraman nahi duten umea; zein astetan eta aste bat baino gehiago aukeratzekotan asten lehentasuna zehaztu beharko dute. Plazen zozketa ekainaren 1ean izango da eta egun horretan aditzera emango da onartuen zerrenda udal webgunearen bitartez ([www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara)). Izena emateko orria eta informazio gehiago udal webgunean daude. Orria beteta posta elektronikoz [euskara.teknikaria@getxo.eus](mailto:euskara.teknikaria@getxo.eus) helbidera bidal daiteke edo ludotekan bertan eman.

### 2018/2019ko ikasturtea

Bestalde, maiatzaren 18ra arte ere izena eman beharko dute Ludotekara datorren ikasturtean joan nahi duten umeen familiek. Ikasturtean zehar ludoteka erabili ahal izateko bazkide izan behar da eta horretarako 40€ ordaindu behar dira. Hobariak daude DSBE jasotzen dutenentzat eta familia ugariarentzat. Inskripzio-orria [www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara) webgunean dago eskuragarri eta behin bete ondoren, Herritarren Arretarako Bulegoetan entregatu beharko da.

## Romo Kultur Etxeak hainbat zerbitzu jarri ditu martxan, pertsona nagusientzat

Datorren maiatzaren 18an, ostiralarekin, Romo Kultur Etxean zerbitzu berriak jarriko dira martxan, horien artean hirugarren solairukoak, udalerriari bizi diren 60 urtetik gorako pertsonentzat, 2016-2019 legegintzaldi planeko jazoera ezagunenetakoa betez. Oinarrizko zerbitzuak dira abiatuko direnak, adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko dituztenak. Lehenengo momentu batean, RKEren instalazioetan eskainiko diren oinarrizko zerbitzuak dira: gizon eta emakumezkoen ile-apaindegia, masajista eta podologia; billardun aretoan; mahai-jokoak eta tailerrak antolatzeak. Dinamizatzaile sozio-kulturala ere izango da bertan. Eta laster, gim-

nastika-gela zabalduko da. Areto berriak Getxo Lagunkoia, pertsona nagusiekin (biztanleriaren %31 dira) atsegina izango den udalerrira bultzatzearen aldeko ekimenaren barruan kokatzen dira eta erantzuna emango diete 2017an udalerriarren egoerari buruz egindako, eta parte hartze handia izan zuen, azterketaren ondorio nagusietako biri. Horietan pertsona nagusiek Udalari eskatu zioten udalerriko pertsona nagusi guztientzat (elkarteko batekoak izanda edo ez, eta anitzak), astiko eskaintza erakargarria eta egokia bermatzeko, partaidetza ahalbideratzeko eta baliabideak adin tarteen eta aniztasun funtzionalaren arabera desberdintzeko

### Zerbitzu gehiago

3. solairua irekita, RKE ordu gehiagorik egongo da zabalik, hau da, 08:00etatik 22:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 09:00etatik 21:00etara, asteburu eta jaiegunetan. Egun beretik aurrera, helduentzako Liburutegiak etengabeko ordutegia izango du, 08:30etik 20:30era, astelehenetik ostiralera, eta 09:15etik 13:00etara larunbatetan. Horrez gainera, ikasgelen inguruko eskarari erantzuteko, aste osoan, larunbat eta igandeak barne, ikasteko aretoak zabalduko dira, RKE programaturiko gainontzeko jarduerarik ez badago aipatutako areto horietan.



## “Arkikus”, kultura-turismoa sustatzeko app bat

Gonzalo Alava arkitekto getxotarrak Arkikus izeneko aplikazio mugikorra jarri du martxan; bere enpresa-bazkideekin asmatu du aplikazioa: Iker Ordoño eta Arantza Satrustegi (arkitektoak) eta Javier Ordoño (arkeologoa). Erraza eta eroso da erabiltzeko eta ondarea jatorrian zegoen moduan ikustea ahalbidetzen du, gaur egun dauden hondakinen berreraikitze birtual errealisten gainjartze bitartez. Gonzalo Alavak aipatu duenez, “Arkikusekin, ondarearen jatorrizko egoera zuzenean esperimintatzea nahi duten pertsona guztientzat ari gara lanean, ondare hori era berritzaile eta inmertsiboan bisitatu deza-

ten. Gure helburu nagusia kultura-turismoa bultzatzea da, teknologia berrien bitartez. Galdutako arkitekturen berreraikitze birtualean ari gara lanean, une historikoak berregiten eta espazio eta pertsonaiak girotzen”. Arkikus-ek Negozio Ideia Onenaren saria eta Madrileko Unibertsitate Politeknikoaren ActúaUPM ekintzailetza-programako StartUp Onenaren diploma jaso zituen 2016an. Aurtengo udan egongo da daborduko erabilgarri Santa Catalina Komentura (Araba) bisitak egiteko; eta beste proiektu batzuk aurreraturik dituzte, Arabako Errioxan eta Bizkaiko hainbat gune turistikoetan. Argibide gehiago: [www.arkikus.com](http://www.arkikus.com)

## Hainbat jarduera Munduko Bidezko Merkataritza egunean

Udalak hainbat jarduera antolatu ditu larunbatean, maiatzak 12, ospatuko den Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna dela eta. Egitaraua 10:00etan hasiko da, Itxartu taldeak antolatutako Orientazio martxa batekin. Hori Algortako Geltokia plazatik aterako da, udalerriko hainbat tokitik igarotzeko, besteak beste, Bidezko Merkataritzako hainbat saltokititik eta SolidaridUP izeneko ekimenean parte hartzen duten establezimendu batzuetatik. Arratsalde, 18:00etatik 20:00etara, doako sukalde tailerra izango da Bidezko Merkataritzako produktuekin (arropa, koko

esnea, espeziak), Ardaska dendako arduradunek dinamizatuta, Algortako etorbideko 55 zenbakian dagoen ADI Espazio gunean. Parte hartu nahi dutenek izena emateko goizez 944073812 telefono zenbakira deitu ahal izango dute, edo WhatsAppen bitartez 605818242 zenbakian. Oraingoan, Getxok partekatu eta koordinatu du jardueren antolakuntza Bilboko udalarekin. Bi udalerriek dute Bidezko Merkataritzaren aldeko hirien egiaztapena. Bilbok Arropa garbiaren erakusketa bat, tailerrak eta jarduerak antolatu ditu Erriberako Merkaturan.

iBidezko merkataritzako eguna ospatzea!

iCelebra el Día del Comercio Justo!

Maiatzaren 12an / 12 de mayo  
Ordutegia / Horario:  
10:00 – 14:30.





Imanol Landa alkatea eta Amaia Agirre bisitan, Bentaranoa elkarteak Unai Zaballa eta Virginia Pérezekin

## 300 lagun inguru Bentako bisitaldian

300 lagun inguruk bisitatu zuten Andra Mari auzoko Benta iragan larunbatean, hilak 5, atea zabaltzeko egunean. Era guztietako adinekoak izan ziren bisitariak eta Bentaren iragana, oraina eta geroa ezagutzeko aukera izan zuten, erakusketa multimedia baten bitartez; eraikina berriro irekitzeko bultzatu eta zabaldu den hiritarren parte-hertze prozesuari buruzko ibilbidea ere ikusi ahal izan zuten irudietan islaturik.

“Guzti guztiontzat, ospatzeko eguna da gaurkoa”, nabarmendu zuen Bentaranoa Elkarteak bozeramaile den Unai Zaballak. “Pertsona desberdinak gara, helburu bakar berberarekin: Benta zabaldu, martxan jarri eta, era berean, auzoari bizitza eman”, gehitu zuen. Alkateak, Imanol Landak, egindako bidea eskertu zuen eta prozesuaren bultzatzaileek egindako bidea, egindako lan hori, nabarmendu zuen. “Proiektu oso interesgarri eta aberasgarria da; asko dugu ikasteko, apaltasunez, 100dik gora lagunek parte hartu duten prozesu eredu garri horretaz, non 200 proposamen inguru jaso diren”, azpimarratu zuen Landak.

Bestalde, Komunikazio eta Gobernu Irekiaren arloko zinegotzi arduradunak, Amaia Agirrek, gogoratu zuten Udalean lanean eta laguntzen segituko dutela espazio hori martxan jar dadin. “Pozgarria izan da bertara hurbildu diren pertsona guz-

tiak, nagusiak, gazteak eta umeak”. Azkenik, Virginia Pérez Bentaranoa Elkarteak partaideak dei bat egin zuen edozein pertsona hurbildu eta Bentaren proiektuari ekarpenak egin diezaizkion. “Ideia mordo bat dugu, baina taldea irekita dago proposamen berriak entzuteko”, esan zuen, azkenik.

## Filatelia Elkarteak RKEri eskaintzen dio bere erakusketa

Apirilaren 14tik 26ra bitartean, bi aste-tan, Romo Kultur Etxea-RKE, Getxoko Filatelia elkarteak urtero egiten duen erakusketa ikusgai egongo da. Aurten, bere 35garren urteurrenean, Romoko erdigunean dagoen udal ekipamendu berri honi dedikatu diote.

Erakusketa honetarako Correosi oroitzapenezko zigilumarka berezia eskatu dio non RKEn egiten diren hainbat jarduera ordezkaturik dauden (irakurketa, margoa, musika...). Habaler, zigilu pertsonalizatua eta oroitzapenezko txartela egongo dira eraikin berriaren fatxadarekin. Astelehenean, hilak 14, 17:00etatik 20:00ak

arte, Correoseko aldi baterako postetxe non oroitzapenezko zigilu-marka ipini ahal izango den edozein postagarrian.



Erakusketa irekia izango da eta bertan filatelia kategoria eta gai guztiak sartzen dira. Euskadiko zein estatu osoko eta Portugaleko ordezkariak egongo dira. Zabalik egongo da 11:00etatik 13:00ak arte eta

17:00etatik 20:00ak arte. Larunbatean, hilak 19, erakusketaren sari banaketa baino lehenago, Euskal Selluzale Elkartearen Batakundeak bere udaberriko ezohiko batzar nagusia egingo du, RKEko lokaletan.

## Andra Marin San Isidro jaiak ospatuko dira

Maiatzaren 11tik 15era San Isidro Jaiak ospatuko dira Andra Mari auzoan. Jai-ekitaldiak ostiral honetan hasiko dira, hilak 11, txupinazoa jaurtiko baitute 17:00etan. Ondoren, umeentzako jarduerak izango dira, kalejira Areatxu taldearekin, pilota partiduak frontoian eta, gauean, Skabidean eta Mr Pongo taldeen kontzertua eta erromeria.

Larunbatean, hilak 12, 10:30ean zabalduko da egitaraua. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen aldeko Argia Fundazioak antolatuko dituen umeentzako tailerrekin (beste urte batez kolaboratuko du jaiekin); herri kirolak, herri bazkaria eta kalejira izango dira, azken hori Txopolisek girotua. Arratsaldean, gymkana izango da umeentzat, zumba eta DJ baten saioa. 21:00etatik aurrera, pilotalekuan, Nazioarteko Dantza Jaialdia egingo da, Itxas Argiak antolatuta; eta kontzertua Erasoka, Sumisión City Blues eta Item No taldeekin. Igandean, hilak 13, 10:00etan hasiko da jai-eguna bertako produktuen azokarekin; ondoren, argazki-gymkana umeen-

tzat, pilota partiduak, Musikalia Martxing Bandaren kalejira eta Cloverwind taldearen kontzertua egongo dira. Arratsaldean, dantzatzekoak, irristaketa showa eta paintballa umeentzat.

Asteartean, hilak 15, San Isidro eguna, hamaiketako eskainiko da 12:45ean elizako zelaian eta, arratsaldean, idi-probak. Argibide gehiago: [www.facebook.com/andramarikojaiak/](http://www.facebook.com/andramarikojaiak/)

### Autobus zerbitzua, dohainik

Aurreko urteetan bezala, Udalak autobus zerbitzua ipiniko du, dohainik, ostiral eta larunbatean. Bere ordutegia, 23:00-06:30, 45' maiztasunarekin, ostira-lean, eta Andra Mariko kiroldegian izango dira irteera eta helmuga, eta udalerriko zenbait auzotik pasako da, tartean Areeta eta Algorta, baita Azkorritik ere (ibilbidea iazkoaren alderantzizkoa da). Larunbatean 30'koa izango da maiztasuna eta Andra Mariko kiroldegia eta Bidezabalgo metro geltokiaren artean ibiliko da (iazko geraleku berdinak izango ditu).

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udaberriko fasearen saio bi ospatuko dira larunbatean, maiatzak 13, Fadura kiroldegian. Goizeko saioa 12:00etan hasiko da eta parte hartuko duten bertsolariak Beñat Romero, Eneko Abasolo *Abarkas*, Garaiz Navarro, Iñaki Iturrioz, Jone Larrinaga eta Mikel Galarza izango dira. 17:30ean hasiko den saioan hurrengoek kantatuko dute: Axier Goñi, Eneko Aldana, Gorka Pagonabarra, Ibai Amillategi, Josu Landeta eta Peio Ormazabal.

Saioetarako sarrerak txarteldegian erosi ahal izango dira, saioa hasi baino ordu erdi lehenagotik. 16 urtera artekoentzat doakoak izango dira, 2€koak bazkideentzat eta 3€koak gainontzekoentzat.



## Txeke solidarioa ASPANOVASentzat

Kultur Etxeak 962,62€ eman dizkio ASPANOVAS-Bizkaiko Minbizidun Haurren Gurasoen Elkarteari, *Imágenes de Getxo* erakusketaren lan salmentarekin bildutako dirua, hain zuzen ere. Erakusketa apirillean egon zen ikusgai Liburu Azokan eta horretan Zirri-Marra Arte-Tailerreko haurrek parte hartu zuten. 4 eta 15 bitarteko ikasleen akuarelak bildu ziren erakusketara. Guztira, 80 artelan saldu ziren eta baita posta-txartel ilustratuak, dohaintza baten truke.



## XII. “Emakumeak eszenan” zirkuitua

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan antzetzuko du igande honetan, hilak 13, 19:00etan, *Semillas del pasado* izenburuko obra, Hamaika Teatro konpainiak; Arrigorriagan emakumeek sortutako taldea da. Antzezlan, Emakumeak eszenan zirkuituaren barruan antzetzuko da, Felipe Cuétarak idatzitako eta zuzendutako da, azken urteetan taldearen koordinatzailea dena. Antzezpena ikusteko sarrera dagoeneko salgai dago, 3€an.

## Continental Shield finala jokatu da Faduran

# Errugbiaren jaia ere iritsi da Getxora

Baloi obalatua da protagonista egunotan Getxon. Izan ere, Fadurak hartuko du larunbat honetan, maiatzak 12, eguerditik aurrera, Continental Shield txapelketa, Europako lehiaketa garrantzitsuenetan hirugarrena, errugbi amateurren eta profesionalaren artean dagoena. Finala Heidelberger talde alemaniarrek eta Enisei STM errusiarrak jokatuko dute.

Partidua aitzakia ezin hobea da kirol honi bultzada bat emateko Uribe Kostara eta Mungialdeako eskualdeetan; eta horregatik, Euskadiko Errugbi Federazioak hainbat jardura programatu ditu, bai partidu jokatu den egunean bai aurreko egunetan ere. Horrela, jai giroa ostegun honetan bertan, hilak 10, nabaritu du, Algortako kaleetan 'pintxo-potea' egingo baita, 19:30etik aurrera; Taberna Ibiltaria taldeak girotuko du.

Larunbatean, errugbi zelaiaren inguruetan, 11:00etan, 'Fan zone' Bat irekiko da; bertan, tailerrak antolatuko dira kirol honen muina ezagutzera emateko. Gunea osatzeko, karpak jarriko dira produktu tipikoak dastatu ahal izateko; amaitzeko, paella-jana eskainiko da. Ekimen horiek guztiek helburu nagusi

bat daukate: "Fadura betetzea lortu eta erabateko jai bat izan dadin", Euskadiko Federazioko presidentea den Iñaki Laskurain getxotarraren hitzetan.

### Harmaila osagarria

Fadurako zelaian harmaila osagarria egokitu da, eta ondorioz, 1.500 lagun ingururentzako lekua izango da. Etorriko diren zaleak, batez ere, eskualde honetakoak eta Mungialdeakoak izango dira, Laskurainen iritzian, "zaila baita inguru honetatik kanpoko jendea

erakartzea, kontuan hartuta bi final nagusiak, Champions Cup eta Challenge Cup, asteburu honetan bertan jokatzen direla San Mamesen". Halere, 'Katedralera' joateko sarrerak dituztenak dohainik sartu ahalko dira Fadurara, baita adingabeak ere eta Getxo Errugbiko behe mailetakoak, etxeko talde bezala. Gai nontzeko lagunak sarrera merkeak erosi beharko dituzte: 10€ tribunakoa eta 5€ jeneralekoa, zutik. Getxo Errugbiren egoitzan, Kantxa Kirol Modan eta Base-ri tabernan eros daitezke.



## I. One Sails Sariketa

Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkarteak lehiaketa berria estreinatu du: I. One Sails Trofeoa, ekainean eta uztailean iritsiko diren proba handien atarikoak: Espainiako J 80 Txapelketa, SURNE-Eskarra Trofeoa, Bizkaiko Crucero Txapelketa eta Costa Vasca-Ballena de Oro Sariketa Estropada. One Sails Txapelketaren azken estropada jokatuko dute larunbat honetan, hilak 12, Abrako uretan. Regata klasean, Mikel Emaldiren *Maitena* dago sailkapenaren buruan. Crucero 1 kategorian, José Miguel Francoren *Bacilón* eta Iñigo Axperen *Hang Loose* daude lidertzan. Crucero 2-an, Antonio Saenz Mandiolaren *Patuelas* dago lehen tokiari. Eta J 80 klasean José Azquetaren *Biobizz* ontziarentzat da burua.



## Porfirio Hernández, padel egokituko Espainiako txapelduna Espainiako selekzioarekin

### "Gurpil-aulkian jokatzen den padela oso dibertigarria, irisgarria eta inklusiboa da"

Gurpil-aulkian jokatzen den Euskadiko padela maila altua duelako nabarmen delako adierazi du Fekoor-ek, Desgaitasun Fisikoa edo/eta Organikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzailea. Eta horren erakusgarria da Euskadiko selekzioak irabazi berri duen Espainiako txapelketa. Autonomia Erkidegoen arteko I. txapelketa izan da, eta San Sebastián de los Reyesen (Madril) antolatu da. Zazpi autonomia erkidegok hartu dute parte bertan. Euskal konbinatuak joko-maila oso altua erakutsi zuen txapelketa osoan zehar eta finalean zerrendaburu nagusia den Valentziaren aurka gailendu zen. Euskal selekzioaren kideetako bat Porfirio Hernández getxotarra da; 63 urte ditu eta Fekoor-en padel taldeko kidea ere bada.

Espainiako txapelketa da euskal padel egokituaren orain arteko lorpenik handiena.

Selekzio mailan bai, lehenengo txapelketa ofiziala izan delako. Euskadiko maila altua da. Binakakoan ia euskaldun denak gaude lehen hogeien artean. Duda barik, onena Edorta de Anta da. Bere bikotea izan nintzen selekzioan eta txapelketaren bat irabazi dugu biok batera. Ez dut "bilbainada" batean erori nahi baina esan daiteke maila oso altua dela, ez bakarrik estatu mailan, baita mundu mailan ere, kanpoan ez baitago txapelketarik. Badakigu Italian, Frantzia edota Argentina zerbait mugitzen ari dela, baina oraindik ez dago egituratua.

Selekzioaren kideekin daukazu elkar ulertzea ezin hobea da.

Gipuzkoako edota Nafarroako jendea dagoen arren, asko entrenatzen dugu elkarrekin. Bizkaikoak astero. Oso ondo ezagutzen dugu elkar eta oso ondo ulertzen dugu elkar, eta horrek bikoteak sor-



tzeko hainbat aukera izatea errazten du. Txapelketa honetan arazo bat izan dugu, izan ere, sei kirolari izan gara -Aitor Elorduy, Juanan López, Edorta de Anta, Gaizka Fernández, Ryan Goñi eta ni- hiru bikote osatzeko, hau da, jarduteko tarte oso txikia izan dugu eta gutako bat lesionatzea oso arriskutsua izango litzateke. Baina azkenean ondo irten da, gainera, selekzioaren entrenatzaileak bikoteen konbinazioarekin asmatu du.

**Txapeldunak izateko gogor entrenatu duzue** Askok kostatu da, entrenamendu ordu asko dira, 4 eta 5 ordu bitartean, astean bizpahiru egunetan. Gainera, desplazamendu asko egin behar dira jokatzeko eta estatuko txapelketa askotan parte hartzen dugunez, ahalegin pertsonal handia suposatzen du. Hiru urte daramatzagu federatuta.

**Zergatik aukeratu zenuen padel modalitatea?** Saskibaloiarekin hasi nintzen orain dela denbora asko, baina ez nintzen oso ona. Lehiaketa mailan ping-pongaren aritu

izan naiz urte askoan zehar. Espainiako txapelduna izatera iritsi nintzen eta munduko txapelketan egon nintzen estatuko selekzioarekin. Baina nire sorbaldek amore eman zuten eta lesioaren ondorioz ping-ponga utzi behar izan nuen. Egun batean, orain dela bost bat urte, kasualitatez, padela probatu nuen eta jolasteko erraza zela iruditu zitzaidan, berehala dibertitzen baitzara. Kirol oso irisgarria da ia edozein ezgaitasunentzako, ez baita superatleta bat izan behar. Gainera, oso inklusiboa da, hanketan ezgaitasunik ez duen pertsonekin jokatzen dugu, nahastu egiten gara eta bikote mistoak egiten ditugu. Ibilbide luzea du eta gauza interesgarri asko ditu.

### Hurrengo hitzorduak?

Orain dela egun batzuk Sevillan jokatu genuenaren ostean, hurrengoak Espainiako binakako txapelketara sailkatzeko jokatu ditugun Donostiako, Getafeko eta Valladolideko txapelketak dira. Espainiako binakako txapelketa Huelvan ospatuko da ekaina bukaeran, denboraldiari amaiera emateko.

## LABURRAK

**Igeriketako Euskal Herria Kopa.** Emaizta bikaina Getxo Igeriketa Waterpolo Bolue Elkarteak (GIWBE) 2018ko Euskal Herriko Kopan lortutakoa; Irunen jokatu da duela gutxi. Neskek txapeldunak izan ziren eta mutilak, berriz, txapeldunordeak. Txapelketan izan ez zena Mikel Bildosola izan zen, lesio baten erruz ezin baitzuen parte hartzerik izan txapelketan.

Neskak, aldiz, galako taldearekin joan ziren, itxaropen handiarekin eta sasoi bete-betean. Eman zuten maila itzela izan zen, batez ere Ibarrodo ahizpek, libre eta tximeleta probetan. Azken probara, 4x100 estiloak, Bidasoak baino 5'5 puntu gutxiagorekin iritsi ziren GIW-eko igerilariak. Neska getxotarrak, Bizkaiko errekorra ondutuz, bereziki Magy Musonsen jardun bikainari esker, talde gipuzkoarrekoei -mutiletan txapeldunak izan ziren-gailendu zitzaizkien azkenean.

### CD Getxo kadetearen igoera.

CD Getxoren kadete taldea Euskal Ligako taldea da daborduko. Egoera gazi-gozoa, hortaz, Getxorentzat, kadeteak igotzea eta gazteak estatuko Ohorezko Mailari eustea lortu duten arren, nagusien taldeak, berriz, maila galdu duelako, Hirugarren Maila alegia. Datorren denboraldian, kadetea beste talde getxotar batekin arituko da maila berrian, Romo FC taldearekin, aurten seigarren tokian sailkatu dena Euskal Ligan. Lurreko Ohorezko Maila amaitzeko jardunaldi bakar baten faltan, beltz-horiak liga txapeldunak dira. Azken partidua kadete mailan jokatzen duen udalerriko bigarren taldearen aurka jokatu du, Itzabaltzetaren aurka. Horrek kategoriari eutsiko dio, matematikoki salbaturik baitago.

# Udal talde politikoaren iritzia



## HEZKUNTZAREKIN KONPROMETITUAK

Zalantzarik gabe, EAJ-PNV alderdiak konpromiso nabarmena dauka Getxoko haur eta gazteen hezkuntzarekin. Horretarako, ikastetxe eta ikastolekin elkarlanean aritzen da interes handiko jarduerak eta programak eskaintzeko, besteak beste: antzerkia, igeriketa, ibilbide ekologikoak, Agenda XXI, euskararen sustapena, multikirolak, bertsolaritza... Baita, ikastetxe eta ekipamendu publikoetan ikasteko gelak erabilgarri jartzeko ere. Horrez gain, hezkuntzaren unibertsaltasunaren printzipioarekiko konpromisoa ere agerikoa da, kohesio sozialaren aldeko apustuari lotuta, 150.000 euroko diru-laguntzen programa baten bidez gauzatzen dena. Sare publikoko eta itunpeko sareko ikastola eta ikastetxe ugari daude

gure udalerrian, eta udalaren laguntza jasotzen dute eskaintzen dituzten jardueren kalitatea mantentzeko. Udalaren eskumenetako bat Getxoko ikastola eta ikastetxe publikoak kontserbatu eta mantentzea da. Eskumen hori ikastetxeen beharriak eta udaleko arlo desberdinen nahiz bestelako erakundeen lana koordinatuz lantzen da. EAJ-PNV osatzen duten emakume eta gizonen konpromiso nabarmena da.

Hezkuntzarekiko konpromiso horren isla da, besteak beste, joan den apirileko osoko bilkuran onetsi zen erabakia. Horren bidez, Getxoko ikastetxe publiko eta pribatuek jolastokiak estali ahal izango dituzte, ikasleen baldintzak hobetu ahal izateko. Horretarako, hiri-antolamenduko plan orokorra aldatu egin da, sabaiaren koefizientea kontuan



hartzeko moduari dagokionez. Aldaketa horren bidez, Getxoko ikastetxeen beharriak erantzun nahi diegu, zehazki, gure herriko eguraldia kontuan hartuta, jolastokiak estaltzeko aukera izan dezaten, hartara, beharriak hori ez dezan sabaiaren koefizientea delako hirigintza-parametro batek mugatu. Konpromiso hori EAJ-PNV, PSE eta PP

alderdien babesari esker onetsi da, izan ere, EH Bildu eta Ciudadanos abstenitu egin ziren, eta GUK Getxo erabakiaren aurka agertu zen, ikastetxe itunduen inguruan daukan ikuspegi kritikoa oinarri. Horiek guztiak Getxoko ikastetxe eta ikastola guztietako jolastokiak estaltzearen alde ez agertzeko justifikazio arraroak dira.

PSE-EE  
PSOE

## TURISMO JASANGARRIA??

Azken osoko bilkuran Alderdi Popularrak getxotar guztiak eta, bereziki, algortarrak zur eta lur utzi zituen, Portu Zaharretik Arrigunaga hondartzara doan kostaldeko pasealeku bat eraikitzea defendatzen zuen proposamen batekin. Adierazi zutenaren arabera, oinezkoentzako eta bizikletentzako konexio hori oso erabilgarria izango litzateke "eta paisaia aldetik balio handia izango luke". Alderdi sozialistak betidanik defenditu izan du Getxoko turismoa eta horrek tokiko saltokietan eman ditzakeen fruituak. Baina ez edozein prezioetan. Gure ustez, sektore turistikoaren sustapena eta babesaren guztiz bateragarria da ingurumenarekin eta natura-ingurunearen zaintzarekin. Gainera, esku hartu nahi duten eremuak Kostaldeko Legearen, Getxoko HAPoren eta Kostaldeko Lurralde Plan Sektorialaren legezko babesaren dauka, izan ere, *babes bereziko* zona gisa sailkatuta dago. PP alderdiko ordezkariak gure lurraldea, gure lurra, mugarik gabeko aprobetxamendurako eremu gisa ikusten dute. Ez dute ingurumenarekiko inolako errespeturik erakusten, eta ez dakite ezta Kantarepe non dagoen ere. Ez litzateke harrizkoa izango euren hurrengo proposamena Azkorri bestea "Algarrobo" bat eraikitzea izatea.

Cs

## ZURE AHOTSA IZAN NAHI DUGU

Argi daukagu zuek, getxotarrak, lehen eskutik eza gutzen duzuela zein eraberritze-lan behar dituen zuen inguruak, eta zuek izango duzuela, ziur aski, kexa, iradokizun eta ekarpen mordoa. Azken finean, Getxoren taupada zarete. Zuen ahotsa izan nahi dugu. Jar zaitezte gurekin harremanetan: [herritarrak@getxo.eus](mailto:herritarrak@getxo.eus) Twitter: @CsGetxo, Facebook: Cs Getxo. Tfno: 944660291. Zain gaituzue.



## IKASGELAK GOBELAKO KIROLDEGIAN

Gobelako kiroldegian zegoen liburutegiak behin betiko itxi zuten ateak martxoan, eta Romoko Kultur Etxe berrira lekualdatu da. Horren ondorioz, bertan zegoen gela, lehen liburuz beteta egoten zena, erabat hutsik gelditu da, eta momentuz ez da gela horrentzako etorkizunerako inolako jarduerarik aurreikusita.

Bestalde, argi dago Getxon ikasteko gelak falta direla, izan ere, auzotar asko inguruko udalerrietako lokal eta geletara joan behar izaten dira ikasi ahal izateko. Horiek horrela, PP alderdiak zera proposatzen du: liburutegi zaharreko instalazioak gure gazteentzako



ikasgela gisa erabiltzea. Azterketa garaia bertan da, eta gela horrek da-

goeneko erabiltzeko prest dauden ehun toki inguru ditu.



## KONTRATAZIO-MAHAI BERRIAK GETXON

Sektore publikoko kontratazioari buruzko lege berria indarrean sartu da. Ondorioz, kontratazio-mahaietan ordezkariak politikoa egon behar den edo ez erabakiko da Getxoko Udalean. Legeak bi aukera ematen ditu: ordezkari egotea —kide guztien herenaren mugarekin— edo ez egotea. GUK-ek kontratazio-mahaietan ordezkariarik ez egotea proposatu du, izan ere, kontratazio-mahaietan egiten den lana erabat teknikoa da: ez da erabakitzen zer lizitatzen den, ezta nola lizitatzen den ere, aitzitik,

aurkeztutako proposamenak tekniko ki eta juridikoki baloratzera mugatzen dira mahaiak. Horrenbestez, kargu hautetsiek kontratazio-mahaietan parte hartzeak ez dauka zentzurik, izan ere, hautetsiek ez dituzte kargu horiek betetzen aditu juridikoak edota teknikoak izateagatik, baizik eta herritarrak ordezkatzeko. Gure ustez, ordezkari hori zer eta nola zehazteko uneetan erabili behar da: zer lizitatuko dugun eta nola egingo dugun erabakitzeko; zeharkako kudeaketa gisa sektore pribatura zer eramango dugun erabakitzeko, eta

zuzeneko kudeaketaren bidez, hau da, gure langile eta baliabide propioekin zer eskainiko dugun erabakitzeko. Zehazki, pleguetan klausula eta irizpide sozialak ezartzeko baliabitu behar dugu ordezkariak, hauek sustatzeko: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, lan egonkortasuna, lan baldintza duinak, ingurumena, hirigintza jasangarria eta kolektibo beharretan inklusioa, estatu sozial baten funtsezko balioak hobeto zaintzeko. Harremanetarako: [guk@getxo.eus](mailto:guk@getxo.eus) / 944660290



## GETXOZARRAK: MERKATARIEN ALDEKO PROIEKTUA

Getxozarrak egitasmoa aurkeztu dugu helburu argi batekin: tokiko merkataritza laguntzea. Proposatzen duguna fidelizatzeko eta ordaintzeko txartela da, **Getxozarrak** izeneko. Horrela erosketak zikloa eragin dezakegu herrian. Getxotarrak txartela erosita tokiko merkatariei babesaren adieraziko genieke eta horiek eskaintzen dituzten deskontuak atxikitutako dendetan erosteko diru bihurtuko litzateke. Merkatariek atxikitze konpromiso batzuk hartu beharko lituzkete: lan-

gileen lan baldintzak bermatu, merkataritza jasangarria bultzatu, ingurugiroa zaindu eta abar. Horixe da dinamika, erraza. Gure ustez udalak sustatzaile eta babesle papera bete behar du eta prozesua abian jarri urte beteren buruan errealitate izateko. Aurkeztu dugun proiektua merkatariekin eta alderdi politikoekin partekatzen ari gara, denoi dagokigu tokiko merkataritza indartzea, horrek ematen baitie bizitza gure kaleei.

